

Hitzaldiak

Elhuyarren eskutik

Carton Virto, Eider
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

Zuzenean esatea eta entzutea izaten da askotan egokiena. Galderak eta erantzunak trukatzuz, pentsamendua akuilatzea. Elhuyar Fundazioak eskaintzen dituen hitzaldiek horixe izaten dute helburu: adituak eta publikoa elkartuz, zientzia eta teknologiako gaiak eta kezak zabaltzea, haiei buruzko jakintza eta hausnarketa bultzatzea.

ELHUYAR FUNDAZIOAK URTE ASKO DARAMATZA ZIENTZIA HITZALDIEN BIDEZ ERE DIBULGATZEN. Dibulgazio-lan hori bi zirkuituren bidez egiten dugu nagusiki: Gipuzkoan, Kutxa Fundazioaren Gizarte Ekintzaren eskutik, kultura-etxeetan; Nafarroan, berriz, Hezkuntza Departamenduaren babesarekin, ikastetxeetan egiten dugu zabal-kunde-lana, DBHko eta DBHOko ikasle eta irakasleen artean.

Bi zirkuitu horietatik kanpora ere antolatatu eta ematen ditugu hitzaldiak, eta,



E. CARTON

hain justu, eskaintza hori gizarte osora hobeto zabaltzeko asmoa abiatu dugu 2006an. Horretarako, lehen pausoa hitzaldien berri www.elhuyar.org webgunean txertatzea izan da, interesaduenari horiek programatzeko aukera emateko.

Guztira 21 hitzaldik osatzen dute webgunearen bidez hedatu nahi dugun eskaintza. Gaiak ere askotarikoak dira: osasuna eta elikadura, kirola, bizia eta kimika, garapen jasangarria, klima-aldaketa, energia, geologia... Ordu bete

inguruko iraupena izateko daude prestatuta.

Hitzaldi horiekin zientziaren dibulgazioan egiten dugun lana osatu eta zabaltzea da gure helburua, eta, horregatik, Elhuyar Fundazioaren webgunean sartu eta hitzaldi bakoitzaren berri zehatzagoa jasotzera gonbidatzen zaitugu. Eta, informazio gehiago nahi izanez gero, eider@elhuyar.com helbidean jar zaitezke gurekin harremanetan. ☐



Etor zaitez ezkutuko ingurune natural hau ezagutzera eta abenturaz gozatzera

Sobrongo abentura-zentroa

kanoa, kayak, paintball, mendi-ibilaldiak, orientazioa, mendi-bizikleta, arku-tiroa, igerilekuak...



Eskola-umeentzako prezio bereziak

01423 Sobron (Araba)
tel.: 945 359016
faxa: 945 359137
<http://www.aventurasobron.com>
h. el.: info@aventurasobron.com